

DIRU SARRERAK

Negozia martxan jartzeko orduan bi finantziario bide izango ditugu nagusiki. Hasteko enpresa sortzerako orduan 100.000€-ko kapitala jarriko dugu. Lau ekintzaile gara eta laurok parte hartze berdinean sortuko dugu enpresa, bakoitzak 25.000€-ko ekarpena eginez. Gainontzekoa eskuratzeko kanpo finantziarioara joko dugu, kasu honetan mailegu baten bitartez izango da. Eskaintzarik onena Rural Kutxaren bitartez jaso dugu %2,5ko interes tasarekin eta 20 urteko epearekin.

Gure jatetxea martxan jartzerakoan, beste diru sarrera batzuk edukiko ditugu. Alde batetik, iturri nagusia, **egungo menuetatik** ateratzen dugun etekina izango da, eta etekin guztia negozioan inbertitzeko erabiliko dugu. Gure estimazioen arabera, 2000 menu salduko ditugu hilabetean eta menu bakoitzaren prezio finkoa, 15€koa izango da. Beraz hilabetero 30.000€ko diru sarrerak jasoko ditugu.

Bestetik, egungo menuak ez diren **beste salmentetatik** ere diru sarrerak lortuko ditugu eta lortutako diruaren erdia negozioan inbertituko dugu. Beste erdia, langileen soldatak ordaintzeko erabiliko da. Bezeroek eskaintza zabala duen karta bat izango dute, haiek gustuko duten menu bat osatzeko. Karta horretan, razioak, postre gehigarriak, edariak eta platerrentzako osagarriak (patatak, saltsak...) egungo dira salgai. Eskaintzaren adibide bat da hurrengo taulan agertzen dena:

	normala	premium
Pizza	4,50 €	7,50 €
Hanburgesa	4,00 €	7,00 €
Fajitak	3,00 €	5,00 €
Kebab	5,00 €	8,00 €
Patata frijituak	2,50 €	4,50 €
Patata brabak	2,75 €	5,50 €
Tipula eraztunak	3,00 €	5,00 €
Nuggets	2,00 €	3,50 €
Kroketak	4,00 €	7,00 €
Rabak	3,80 €	5,00 €
Oilasko hegaleak	4,00 €	4,70 €
Arraultza frijituak	1,50 €	2,25 €
Tortillak	6,00 €	10,00 €
Krepak	1,00 €	2,00 €

DIRU SARRERA BIDEAK	HILABETEKO KOPURUAREN ESTIMAZIOA
Eguneko menuak	30.000€
Salmenta gehigarriak	15.000€
Patrozinio edo babesleak: hilero kolaborazioak eta iragarkiak egingo ditugu beste enpresa batekin, eta hilabete osoan zehar, enpresa hori lokalaren fatxadan eta gure negozioko janari-banatzzaileen motorretan sustatuko dugu.	3.000€ - 5.000€